

jokulariak141

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
udaberria 2026 primavera



AISGE

es lo tuyo

Si eres actor o actriz audiovisual,

¡HAZTE SOCIO!

No te
costará
nada,

Te beneficiarás
de nuestra labor
asistencial y
formativa


Y recibirás los
derechos que te
corresponden



aisge

www.aisge.es

Tel. 943 271 599



141

udaberria
primavera
2026
Azala Argazkia
EAB

10



18



16

AURKIBIDEA

04	EDITORIALA
06	EAB eraikitzen jarraitzen dugu
10	El euskera en escena EAB, Lolak kolektiboa, Kamikaz kolektiboa, Ameztu Antzerkia, Itzuli konpainia

16	Eskena, 30 Urte
18	EGINDAKOAK De la separata al rodaje Eneko Arcas

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe n° 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 688 619 788

BILBAO
Bilbaoeszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 747 477 912

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

Koordinazioa eta edizioa
Maria Pastor, Uzuri Guridi
Testuen zuzenketak
Uzuri Guridi, Eneko Sagardoy

Maketazioa, diseinua
I. Z.
Inprimategia
Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau
denona dela eta gustura
hartuko genituzkela zure iritzia eta
artikuluak.
Recordad que esta revista
es de todas y todos, y que
gustosamente recibiremos tus
opiniones y artículos.

JOKULARIAK BATZUETAN IDEIA ARGI BATEKIN JAIO ETA AMAITZEN DA EZ DA ESKU ARTEAN DUZUN ALEAREN KASUA

Ale honen hasierako ideia beste bat zen arren, edukiak bildu eta orrialde hauek bete dituzten pertsonen hitzak, iritziak eta gogoetak irakurri ondoren, ondorengoaz konturatu gara: irakurriko duzuen ia guztia lotzen duen hari bat dago: bizitzara egokitzeko artea.

Egungo Zuzendaritza Batzordea helburu argiekin hasi zen lanean. Hala diraute, baina errealitateak geldirik ez egoteko ohitura du eta pertsonak aldatzen dira, egoerak aldatzen dira, sektorearen beharrak aldatzen dira eta hasierako planean ez zeuden erronkak agertzen dira. Norberak ezarritako mapari jarraitzea zaila da maiz, ezta? Batzuetan lehentasunak birplan-teatzea tokatzen da, momentuan erabakiak hartzea edo, besterik gabe, bidea ez dela guk irudikatu genuena onartzea. Eta askatzen ikas-tea tokatzen zaigu, berriro mapari begiratzea, eta ez da beti erraza izaten. Izan ere, pertsona guztientzat egokiena dena egiteak etengabe erabakiak hartzea dakar, jakinik mundu guztia pozik dagoen agertokia fikzioan, bizitza errealean baino, ematen dela. Hala ere, egunero ideia berdinarekin amaitzen dugu, bihar hobeto egiten saiatzearena.

Gaitasun hauek ale hau zeharkatzen duen gaietako batean nabarmendu dira: eus-kara eta arte eszenikoak. Gure hizkun-tzan sortzearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu? Nolakoa da profesionalki euskaraz lan egin eta bizi direnen erreali-tatea? Posible da karrera egonkor bat eraikitzea? Erabakiak, erabakiak eta erabaki gehiago... Eta erantzunak gure sektorea osatzen duten pertsonak bezain ezberdinak dira. Ondorengo orrietan, arte eszenikoetan eus-

karak gaur egun duen egoeraren mapa txiki bat marrazten saiatu gara. Ez du behin beti-koa izan nahi, galderak zabaldu eta hausnar-keta eragitea bilatzen du. Eta hurrengo alean, Jokulariak 142an, ikus-entzunezkoetan jarri-ko dugu fokua. Espero dugu bi zenbaki horien artean informazio-puntu objektiboak aurkitzea, errealitatea hobeto ulertzen lagunduko digute-nak. Izan ere, ametsez egindako ofizio batean, objektibotasun pixka bat ez dator inoiz gaizki, ezta? Batzuek amets hauek bete eta hauei es-ker bizitzea lortzen dute; beste batzuek saia-tzen jarraitzen dute eta bide ezberdinak har-tzea erabakitzen dute. Interpretazioan aritzea ez da inoiz lanbide konbentzionala izan. Eta agian hortxe dago bere edertasunaren zati bat, eta baita bere zailtasunaren zati bat ere. Gizarteari zerbait erakusteko ideiarekin sortzea, konta-tzea, partekatzea edota eraikitzea ideia anbi-guo eta zehatza baita.

Aurten 38 urte bete ditu EABk. Eskenak, 31. Denbora eta pertsonen buruz hitz egiten duten zenbakiak dira. Gu baino lehen egon zirenak, orain daudenak eta gero etorriko direnak. Le-hen begirada bat, agurrak, barreak, malkoak eta eztabaidak, eta elkarriketa gisa jaio eta azkenean errealitate bihurtu ziren proiektuak. Izan ere, elkarte bat bilerekin eraikitzen da, bai, baina baita korridoreko elkarriketekin, ba-besekin, eztabaidekin eta baita EABn aurrera ateratzen ditugun ikastaro edo jarduerekin ere. Nork esango zigun afiliazio fitxa hura bete genuenean hainbeste gauza elkarrekin biziko genituela?

Etexez aldatzen jarraitzen dugu. Egokitzen. Ar-tea sortzen jarraitzen dugu.

HAY NÚMEROS DEL JOKULARIAK QUE NACEN Y TERMINAN CON UNA IDEA

ÉSTE NO ES EL CASO

Aunque la idea inicial de este número de Jokulariak era otra, después de recopilar los contenidos y leer las palabras, opiniones y reflexiones de las personas que llenan estas páginas, nos hemos dado cuenta de que, sin proponérselo, apareció un hilo común que conecta casi todo lo que vais a leer: el arte de adaptarse a la vida.

La actual Junta Directiva comenzó su andadura con unos objetivos claros para estos dos años. Siguen siendo los mismos que podréis leer en las siguientes páginas, pero la realidad tiene la costumbre de poner a prueba cualquier hoja de ruta y no permanecer quieta. Cambian las personas, cambian las circunstancias, cambian las necesidades del sector y aparecen nuevos retos que no estaban en el plan inicial.

Qué complicado es a veces seguir el mapa que uno se ha puesto, ¿no? A veces toca replantear prioridades, encontrar soluciones sobre la marcha o simplemente aceptar que el camino no es exactamente el que habíamos imaginado. Y toca aprender a soltar y volver a mirar el plano para reencontrarse. Y no siempre es fácil. Porque intentar hacer lo mejor para todas las personas implica tomar decisiones constantemente, sabiendo que el escenario en el que todo el mundo está satisfecho existe más en la ficción que en la vida real. Aun así, cada día terminamos la jornada con la idea de que mañana intentaremos hacerlo mejor.

Esas capacidades aparecen en uno de los temas que atraviesa este número: el euskera en las artes escénicas. ¿Seguimos apostando por crear en nuestra lengua? ¿Cómo es la realidad de quienes trabajan y viven profesionalmente en euskera? ¿Es posible desarrollar una carrera estable? Decisiones, decisiones y más decisiones... Y las respuestas son tan diversas como las personas que forman parte de nuestro sector.

En estas páginas intentamos dibujar un pequeño mapa de la situación actual del euskera en las artes escénicas. No pretende ser definitivo, pero sí abrir preguntas y generar reflexión. En el próximo número, el *Jokulariak* 142, pondremos el foco en el audiovisual. Esperamos que, entre ambos números, encontremos puntos objetivos de información que nos ayuden a comprender mejor la realidad. Porque en un oficio hecho de sueños, un poco de objetividad nunca viene mal, ¿no? Algunas personas consiguen vivir de ellos, otras siguen intentándolo y otras deciden tomar caminos diferentes, aunque ¿qué es esto verdaderamente? Dedicarse a la interpretación nunca ha sido una profesión convencional. Y quizá ahí resida parte de su belleza y también de su dificultad. Qué ambiguo y a la vez qué concreta es la idea de que creamos, contamos, compartimos y construimos para intentar enseñar algo a la sociedad.

Este año 2026, EAB cumple 38 años. Eskena, 31. Son números que hablan de tiempo, de personas. De quienes estuvieron antes que nosotras, de quienes están ahora y de quienes llegarán después. De una primera mirada, un saludo, de decir adiós, de risas, lágrimas y discusiones, y de los proyectos que nacieron como una conversación y terminaron convirtiéndose en una realidad. Porque una asociación se construye con reuniones, sí, pero también con conversaciones de pasillo, con apoyos, con debates, y con los cursos o actividades que sacamos adelante en EAB.

Quién nos iba a decir cuando rellenamos aquella ficha de afiliación que acabaríamos viviendo tantas cosas juntas.

Seguimos mudando. Seguimos adaptándonos. Seguimos creando arte.

EAB ERAIKITZEN JARRAITZEN DUGU

Zuzendaritza batzorde berria eratu zenetik urtebete baino gehiago pasa da jada eta, jardunari pixkanaka heldu genion arren, 2025eko urrian sartuta geundela, letra onarekin eta kolektibo osoaren eskubideen defentsan aurrera egiten jarraitzeko beharrezko bultzadarekin ekin genion.

Aurreko Batzordeak egindako lanari jarraipena emateko borondatearekin hartu dugu ardura hau, eta eskerrak eman nahi dizkiogu jasotako babesagatik eta errelebo prozesu honetan eskuzabaltasunez eskaini diguten laguntzagatik. Oinarri honetatik, EABren nortasuna osatzen duten proiektuak bultzatzen jarraitu dugu, eta ogibidearen egungo beharrei erantzuna emateko ekimen berriak abiarazi ditugu. Gure helburua berbera da: euskal aktoreen eskubideak defendatzea, haien lan-baldintzak hobetzea, aukera berriak sortzea eta gero eta erabilgarriagoa, parte-hartzaileagoa eta afiliazioarengandik hurbilago dagoen elkarte bat indartzea.

Ondorengo lerroetan, egun sektorea gehien kezkatzen duen gaietako baten inguruan ere arituko gara, EABk modu aktiboan lantzen jarraitzen duen gai bat. Ikus-entzunezko Akordio Autonomikoaren aplikazioak zalantza eta kezka ugari sortu ditu eta zuekin egoera eta helburuak zeintzuk diren partekatzea premiazkoa iruditzen zaigu.

Akordio Autonomikoaren negoziazio eta berritzean egindako lanarekin jarraitzen dugu: 2025eko uztailaren 7an berritu zen egungo akordioa eta zuzendaritza batzorde berriak akordioaren batzorde parekidean parte hartu du, baldintzak hobetzen jarraitu eta euskara hutsezko produktioek jasaten duten soldata-murrizketa behin-betiko ezabatzeko helburuekin. Gure ustez, neurri horrek ez du justifikaziorik, batez ere ekoizpen horien aurrekontuek nabarmen gora egin dutenean, euskal aktoreek bakarrik jasaten dute zigor hori.

Honekin batera, jatorrizko bertsio bikoitzeko ekoizpenentzako (euskara eta gaztelera) aurreikusitako %30eko plusa kolektibo osoarentzat onuragarria izan dadin lanean jarraitzen dugu. Akordioaren inguruan orain arte egin den interpretazioak hobekuntza ekarri die gutxieneko tarifak jasotzen dituztenei, baina ez du eragin bera izan cache bidez lan egiten dutenengan, igoera xurgatu egin baita ordainsariaren barruan. Eta beste egoeraren batean ere, igoera edo plusa ez da aplikatu ere egin, ekoiztetxea EPE-IBAIAren (gure solaskidearen) barne ez dagoelako. Datorren negoziatziorako gure helburua interpretazio hori zuzentzea da, hobekuntzak modu justu batean mesede egin diezaien aktore guztiei, eta nahitaez aplikatu beharrezkoa izan dadin, produkzio-etxea EPE-IBAIAren kide izan ala ez. Funtsezkotzat eta premiazkotzat jotzen ditugun bi borroka hauez gain, APDICE bezalako sektoreko hainbat erakunderekin lankidetzat sendotu dugu, eta Elias Querejeta Zine Eskolarekin (EOZE) akordio bat formalizatu dugu etorkizuneko zinemagile eta interpreteen arteko paketak erraztu eta lan aukera berriak sortzeko. Lan-aholkularitzako eta aholkularitza juridikoko zerbitzuek ere berrikusi ditugu hobetzen jarraitzeko asmoarekin- zuen iritzia funtsezkoak izan dira prozesu honetan. Formakuntzaren aldeko apustua egiten jarraitu dugu eta Besarkada Sariak urtero ospatzearen aldeko apustua ere egin dugu. Era berean, Arte Eszenikoen eta Ikus-entzunezkoen komisioak martxan jarri dira, EAB bi arlo horietan egiten ari den lana indartuz... (Arnasa hartzeko geldiunea, gehiago dago eta). ConArten aktiboki parte hartzen jarraitzen dugu, Artistaren Estatutuaren aurrerapenak gure errealitatera hurbiltzeko, legedi eta araudi berriei jarraipena eginez eta informazio hau afiliatori modu argi batean helarazteko, are eta lankide gehiagok onura, eskubi-

de eta hobekuntzak jaso ditzaten. Honez gain, Gas-
teizen espazio propioa izateko lanean jarraitzen dugu,
EABk aspaldidanik lortu nahi duen helburua, eta laster
errealitate bihurtzea espero dugu; EABrekin harreman
egonkorra duten erakundeekin ere lankidetzan jarrai-
tzen dugu, eta sektorearentzako ekimen estrategikoe-
tan parte hartzen dugu, hala nola etorkizuneko Euskal
Zinemaren Akademia sortzeko prozesuan.

Afiliazioarekiko komunikazioa hobetzea da gustatuko
litzaigukeen beste gauzetako bat. Aurreko zuzendarit-
za barzordeak egindako berrantolaketa-lan garrantzi-
tsuari esker, gaur egun oinarri sendo bat dugu bertatik
eraikitzen jarraitzeko. Orain beste urrats bat eman nahi
dugu: hamabosteroko buletina informazio-kanal nagu-
si gisa sendotzea, sare sozialetan dugun presentzia
indartzea eta informazioa partekatzeko modua hobe-
tzen jarraitzea, afiliatu guztientzat argiagoa, eskuraga-
rriagoa eta erabilgarriagoa izan dadin. Izan ere, elkarte
bat ez da soilik informazioa emanez eraikitzen, baizik
eta elkartearen osatzen dutenen ahotsa entzun, partekatu
eta parte-hartzea erraztuz ere.

Aldaketa sakonak bizi ditugu lanbidean. Adimen ar-
tifizialak, aniztasunak, hizkuntzek, kontziliazioak edo
ekoizpen-modu berriek hainbat erronka planteatzen
dizkigute, eta erronka horiei talde lanarekin bakarrik
egin ahal diezaiekegu aurre. Bide luzea dago egite-
ko, baina lehen urte honetan ikasi dugun zerbait EABk
aurrera egiten duela da, EAB osatzen dutenen inpli-
kazioari esker.

Horregatik, elkartearen bizitzan aktiboki parte hartzera
animatu nahi zaituztegu: zuen proposamenak helara-
ziz, bulegoetan Uzuri eta Mariarekin kezka partekatuz
eta, bereziki, komisioen lanari atxikiz. Izan ere, sindika-
tu-elkarte batek denon artean eraikitzen denean baino
ez du zentzurik.



EAB ZUZENDARITZA BATZORDEA

Urko Olazabal

Idazkari nagusia

Nazaret Froufe

Antolakuntza idazkaria

Helena Sáenz

Finantza idazkaria

Eneko Sagardoy

Ikus-entzunezkoen idazkaria

Jon Koldo Vázquez

Arte eszenikoaren idazkaria

Adrián Santos

Bokala

SEGUIMOS CONSTRUYENDO **EAB**

Ha pasado ya más de un año desde que se constituyó la nueva Junta Directiva y, aunque inició su actividad despacito, ya entrado el mes de octubre de 2025, lo hizo con buena letra y el impulso necesario para seguir avanzando en la defensa de los derechos de todo el colectivo. Hemos asumido esta responsabilidad con la voluntad de dar continuidad al trabajo realizado por la Junta anterior, a la que queremos agradecer el apoyo recibido y la generosidad con la que nos ha acompañado en este proceso de relevo. Desde esa base, hemos seguido impulsando los proyectos que forman parte de la identidad de EAB y hemos puesto en marcha nuevas iniciativas para responder a las necesidades actuales de la profesión. Nuestro objetivo sigue siendo el mismo: defender los derechos de las actrices y los actores vascos, mejorar sus condiciones laborales, generar nuevas oportunidades y fortalecer una asociación cada vez más útil, participativa y cercana a la afiliación.

Queremos aprovechar también estas líneas para informaros sobre uno de los asuntos que más preocupa actualmente al sector y en el que EAB continúa trabajando de manera activa. Somos conscientes de las dudas e incertidumbres que ha generado la aplicación del Acuerdo Autonómico Audiovisual y creemos importante compartir con vosotras y vosotros cuál es la situación y cuáles son nuestros objetivos.

En continuidad con el trabajo realizado durante la negociación y renovación del Acuerdo Autonómico, firmada el 7 de julio de 2025, esta Junta participa en la Comisión Mixta con el objetivo de seguir mejorándolo y avanzar hacia la eliminación definitiva de la reducción salarial aplicada a las producciones íntegramente en euskera. Entendemos que esta medida ya no tiene justificación, especialmente cuando los presupuestos de estas producciones han aumentado de forma considerable y son únicamente las actrices y los actores quienes continúan soportando esta penalización.

Asimismo, seguiremos trabajando para que el plus del 30% previsto para las producciones en doble versión original (euskera y castellano) beneficie realmente a todo el colectivo. La interpretación que se ha hecho hasta ahora del acuerdo ha supuesto una mejora para quienes perciben las tarifas mínimas, pero no ha tenido el mismo efecto en quienes trabajan por caché, al haberse absorbido ese incremento dentro de sus honorarios. Tampoco se ha aplicado en algún caso, porque la productora no forma parte de nuestro interlocutor EPE-IBAIA. Nuestro objetivo en la próxima negociación será corregir esta interpretación para que esta mejora beneficie de forma equitativa a todas las actrices y actores y que sea de obligada aplicación independientemente de que la productora forme parte o no de EPE-IBAIA.

Además de estas dos luchas que consideramos fundamentales y urgentes, hemos reforzado la colaboración con entidades del sector como APDICE, y formalizado un acuerdo con Elías Querejeta Zine Eskola (EOZE) para favorecer el encuentro entre futuros cineastas e intérpretes y generar nuevas oportunidades profesionales. También hemos revisado el servicio de asesoría laboral y jurídica con el objetivo de seguir mejorándolo, vuestras opiniones han sido cruciales en este proceso. Hemos continuado apostando por la formación e impulsado la celebración anual de los Premios Besarkada, cuya comisión ya trabaja en la edición de este año. Asimismo, se han puesto en marcha las comisiones de Artes Escénicas y Audiovisuales, reforzando el trabajo que EAB viene desarrollando desde hace años en ambos ámbitos... (Pausa para respirar que hay más). Seguimos participando activamente en ConArte para acercar a nuestra realidad los avances del Estatuto del Artista, haciendo un seguimiento de las novedades legislativas y procurando que esa información llegue de forma clara a la afiliación, para que cada vez más compañeras y compañeros puedan beneficiarse de los nuevos derechos

y mejoras que se vayan incorporando. Además, seguimos trabajando para contar con un espacio propio en Gasteiz, un objetivo que EAB persigue desde hace años y que esperamos poder hacer realidad próximamente. Del mismo modo, continuamos colaborando con las entidades con las que EAB mantiene una relación estable y participando en iniciativas estratégicas para el sector, como el proceso de creación de la futura Academia del Cine Vasco.

La comunicación con la afiliación es otro de los ámbitos en los que nos gustaría seguir avanzando. Gracias al importante trabajo de reorganización realizado por la Junta anterior, hoy contamos con una base mucho más sólida sobre la que seguir construyendo. Ahora queremos dar un paso más: consolidar el boletín quincenal como principal canal informativo, reforzar nuestra presencia en redes sociales y seguir mejorando la forma en la que compartimos la información para que sea más clara, accesible y útil para todas las personas asociadas. Porque una asociación no se construye sólo informando, sino también escuchando, compartiendo y facilitando la participación de quienes la forman.

Vivimos un momento de profundos cambios para la profesión. La inteligencia artificial, la diversidad, los idiomas, la conciliación o las nuevas formas de producción nos plantean retos que solo podremos afrontar desde el trabajo colectivo. Queda mucho camino por recorrer, pero si algo hemos aprendido durante este primer año es que EAB avanza cuando lo hace desde la implicación de quienes la forman.

Por eso queremos terminar animándoos a participar activamente en la vida de la asociación: haciéndonos llegar vuestras propuestas, compartiendo inquietudes con Uzu-ri y María en las oficinas y, muy especialmente, sumándoos al trabajo de las diferentes comisiones. Porque una asociación sindical solo tiene sentido cuando se construye entre todas, todos y todes.



JUNTA DIRECTIVA DE EAB

Urko Olazabal

Secretario general

Nazaret Froufe

Secretaria de organización

Helena Sáenz

Secretaria de finanzas

Eneko Sagardoy

Secretario de audiovisuales

Jon Koldo Vázquez

Secretario de artes escénicas


Adrián Santos

Vocal

EL EUSKERA EN ESCENA

orain

Mapa de uso del euskera por municipios




Miradas sobre la situación del sector

¿Qué significa hacer teatro en euskera hoy? ¿Qué lugar ocupa en los escenarios? ¿Existen suficientes espacios

para crear, programar y encontrarse con el público? ¿Quién consume obras en euskera y cómo están evolucionando sus públicos? ¿Es suficiente con crear o el verdadero reto comienza cuando llega el momento de programar, girar y encontrarse con el público?...

¿Qué de preguntas ¿no? Y cuántas respuestas posibles. Hablar hoy del euskera en el teatro supone hablar de una lengua que ha recorrido un largo camino de recuperación, fortalecimiento y reconocimiento social, pero que continúa enfrentándose a importantes desafíos. Según una Encuesta Sociolingüística, más del 45% de la población de Euskadi posee algún grado de conocimiento del euskera. Sin embargo, este crecimiento no siempre se traduce en un aumento equivalente de su uso cotidiano. Hablar del euskera en las artes escénicas es hablar de una realidad compleja y llena de matices. Durante las últimas décadas, la creación cultural en euskera ha ganado presencia. También en el teatro ha recorrido un largo camino: cada vez son más las compañías, creadores/as que desarrollan su trabajo en euskera y cada año llegan a los escenarios nuevas propuestas.

Dentro de ese panorama, la cultura desempeña un papel. El teatro es un espacio donde la lengua se escucha, se comparte y se convierte en una experiencia colectiva.




Hizkuntzen erabilera kaleko antzerki jaialdietan 2025

Artetikaleko Euskara Batzordea

Aztertutako Jaialdiak: 13

Jaialdiaren izena	Herria	Biztanleak	Alkatetza	Euskaldun kopurua*	Saioak eusk	Testudunak eusk
Umore Azoka	Leioa	32.500	EAJ	60%	12,22%	22%
Kaldearte	Gasteiz	261.500	PSE	40%	6,56%	20%
Araia Umore	Asparrena	1.611	EHBildu	50%	17,85%	38%
Arrigorriaga Clown Arrigorriaga		11.952	EHBildu	58%	6,67%	14%
Kalerki	Zarautz	23.370	EAJ	83%	6,67%	33%
Getxo	Eszena Kaleria	75.981	EAJ	51%	7,14%	33%

TESTUDUN IKUSKIZUNAK GUZTIRA



Aztertutako Jaialdiak: 13

Jaialdiaren izena	Herria	Biztanleak	Alkatetza	Euskaldun kopurua*	Saioak eusk	Testudunak eusk
Kalealdia	Bilbo	348.089	EAJ	46%	12,07%	87,50%
Festikale	Zigoitia	1.844	EAJ	56%	42,86%	54,55%
Kaleka	Lekerio	7.163	EHBildu	88%	53,85%	87,50%
Kilometro Lezo	Lezo	6.012	EHBildu	75%	66,67%	100,00%
Plazara	Basauri	40.388	EAJ	44%	80,00%	100,00%
Rataplan	Barakaldo	101.984	EAJ	37%	16,67%	33,33%
Bagatza	Barakaldo	101.984	EAJ	37%	40,00%	66,67%

Cada representación contribuye a que el euskera forme parte de la vida cotidiana y siga siendo una herramienta viva de creación, reflexión y encuentro.

Sin embargo, el propio Plan de Cultura de Euskadi señala que los sectores culturales que trabajan en euskera deben afrontar dificultades derivadas del reducido tamaño del mercado y de la condición de lengua minorizada. A ello se suman cuestiones como: la dificultad para acceder a determinados circuitos de exhibición, la necesidad de ampliar públicos, la sostenibilidad económica de los proyectos o la búsqueda de espacios donde las producciones puedan desarrollarse y tener recorrido. Los datos reflejan tanto los avances como los retos pendientes. Según el Informe de Programación Cultural de Euskadi 2025, cerca del 40% de las representaciones de teatro y circo realizadas en la Comunidad Autónoma Vasca fueron en euskera. Por su parte, un estudio de Artekale sobre festivales de teatro de calle sitúa la presencia del euskera en el 39,13% de los

espectáculos con texto. Pero la realidad no puede explicarse únicamente a través de porcentajes. Detrás de cada cifra hay compañías que buscan programación, profesionales que sostienen proyectos, artistas que apuestan por expresarse en euskera y públicos que desean disfrutar de una oferta cultural diversa y accesible. En un momento en que la sociedad vasca reflexiona sobre el futuro de su lengua, la cultura sigue siendo una de las herramientas para fomentar su uso en la vida social.

Más allá de los datos y las estrategias institucionales, hemos querido escuchar a quienes viven el teatro en euskera desde dentro. A través de las experiencias y reflexiones de afiliados y afiliadas de EAB que desarrollan su actividad en euskera, exploramos distintas miradas sobre cómo el euskera encuentra -o no- espacios para desarrollarse, las condiciones de trabajo, los desafíos que afrontan. Porque... ¿Cuál es la situación actual? ¿Al fin y al cabo, no es particular y subjetiva?



Lolak Kolektiboa. Irene Hernando,
Esti Curiel eta Amaia Ruiz de Galarreta
Argazkia **Mario Lezaun**



HITZAK

Gure ustez, euskarazko arte eszenikoen sektoreak hainbat erronka eta premia ditu gaur egun: sortzaile-entzako lan baldintza duinak bermatzea, euskarazko ikuskizunek ibilbide luzeagoak izatea eta publiko berriak, bereziki gazteak, erakartzea.

Era berean, beharrezkoa iruditzen zaigu euskararen erabilera soziala indartzea, mundu digitalean presentzia handiagoa izatea eta hezkuntzaren eta arte eszenikoen arteko lotura sendotzea.

Sektorea benetan indartzeko, egonkortasun ekonomiko, sorkuntzarako espazio eta baliabideak, eta komunikazio zein hedapen estrategia eraginkorrak behar dira. Azken finean, euskarazko antzerkiaren etorkizuna ez dugu obra gehiago sortzean bakarrik ikusten, baizik eta sortzen diren lanak ikusle gehiagorengana iristen.

Lolak kolektiboa



*Kamikaz kolektiboa. Iraia Elias,
Amancay Gaztañaga eta Erika
Olaizola. Argazkia kulturaz*

11 URTEKO IBILBIDEA

Kamikaz Kolektiboko kideok honako gauza hauek topatu ditugu hamaika urteko ibilbidean:

Euskara hutsean lan egiten dugun konpainiak zaurgarriagoak garela, bai programatzeko orduan eta bai diru laguntzen kasuan ere.

Programazioan asko nabari da gipuzkoatik irteten garen momentuan beti hobesten dela bi hizkuntzatan egin ahal izatearen aukera. Bestetik zailtasun handiak ditugula ikusten dugu hamaika urteren ondoren Bilboko Arriaga antzokian edota Gasteizen programatuak izateko, adibidez. Antzoki hauek euskararekiko duten interesa zein den ikusteak ere asko tristatzen gaitu, asteburuetan ez baita ia euskeraz programatzen. Antzeko zailtasunekin topo egiten dugu Iruñean eta ipar Euskal Herrian ere.

Jaialdi handienek, feriek, "kanpoan" programagarria izateko ideia horrekin, ez dutela euskara hutsean eginiko antzezlanei begira jarri nahi. Arraroa da eta gure kulturaren aurka doa azken hau: hemendik kanpora egiten diren jaialdi askotan hizkuntza txikituei toki berezia eta balore handiagoa ematen zaie.

Diru laguntzen kasuan esan beharra dago asko arduratzen gaituen gauza batekin topatu garela bidean. Jende askok eskatzen ditu euskaraz lanak egin ahal izateko

diru laguntzak baina kasu askotan hizkuntza aitzakia bat baino ez da diru laguntza hau eskuratzeko: prozesua erdaraz egiten da, testuak erdaraz idazten dira... Honetaz gain, sormenerako dirua lortzeko bidea gero eta konplexuagoa dela esan dezakegu eta burokrazia gero eta zailagoa dela urtez urte.

Zorionez esan daiteke euskarazko sorkuntza oparoa dela eta gero eta lan gehiago plazaratzen dira urtetik urtera, baina zoritxarrez lan horiek guztiak programatuak izateko lekuak ez dira gehitu, eta beraz, gero eta zailagoa da funtzio kopuru txukun bat lortzea. Bestalde esan behar dugu hamaika urte direla gure bidea egiten gabiltzala eta sentitzen dugula gure antzezlanak ikustera publiko anitza datorrela, eta honen barruan, gaztea. Honek asko pozten gaitu eta bidea egiten jarraitzeko indarra ematen digu.

Kamikaz kolektiboa

ANTZERKIA DA. EUSKARAZ ERE BAI

Azken urteotan euskarazko antzerkiak bide luzea egin du. Duela hamar urteko egoerarekin alderatuta, gaur egun euskaraz sortzen diren ikuskizunek presentzia handiagoa dute, konpainia gehiago ari dira euskaraz lanean eta publikoak ere gero eta eskaintza zabalagoa du eskura. Albiste ona da, zalantzarik gabe. Baina sektorean gabilitzanok badakigu aurrerapauso horiek ez dutela esan nahi helmugara iritsi garenik.

Nik behintzat askotan sentitzen dut euskarazko antzerkiak oraindik ere azalpenak eman behar dituela existitzeko. Antzerkiari buruz hitz egin beharrean, sarri “euskarazko antzerkiak” hitz egiten dugu, aparteko kategoria bat balitz bezala. Eta hor dago arazoaren muina.

Euskal Herrian gero eta pertsona gehiagok egiten dute euskaraz bizitzeko hautua. Ondorioz, euskarazko kultura-eskaintza jasotzeko eskubidea ere badute. Logikoa dirudi. Hala ere, oraindik ere maiz entzuten dira argudio berak: herri honetan jendeak ez duela euskara ulertzen, euskarazko ikuskizunek ez dutela funtzionatzen edo programatzea arriskutsua dela. Baina euskara herri honetako hizkuntza ofizialtako bat da, eta horrek kultur programazioan ere isla izan beharko luke, ezta?.

Euskaraz lan egiten dugun konpainion erronka handienetako bat emanaldiak lortzea da. Badira euskarazko programazioa normaltasunez ulertzen duten herriak eta antzokiak, baina beste askotan salbuespen gisa tratatzen da oraindik ere. Arraroak, kuotak edo exotikoak gara! Horrek eragin zuzena du gure lanaren zabalkundean. Azken batean, ez da gauza bera programazioaren erdigunean egotea edo kuota moduko batean sartzea.

Publikoari dagokionez, egoera ez da berdina adin guztietan. Antzerki familiarrean, oro har, ez dugu aparteko arazorik izaten. Hala ere, oraindik gertatzen da kartela ikusi eta norbaitek esatea: «Ah, ¿es en euskera?, me voy». Helduei zuzendutako antzerkian, berriz, zailtasunak handiagoak dira. Programatzaile askok beldurra diote euskarazko lanak eskaintzeari, publikoaren erantzuna zalantzakoa izango delakoan. Euskarazko emanaldi batek ikusle gutxi baditu, askotan errua hizkuntzari egozten zaio



Kay, robot. Ameztu Antzerkia, David Taboada. Argazkia Asier

zuzenean; beste edozein faktore bigarren planoan geratzen da. Bitxia eta injustual

Gainera, programazioak berak ere baldintzatzen du emailza. Askotan euskarazko ikuskizunak aste barruan eskaintzen dira, asteazken edo ostegun batean, eta erdarazko edo nazioarteko proposamenak astebururako gordetzen dira. Benetan baldintza beretan ari gara lehiatzen? Argi dago ezetz! Pentsa dezagun.

Etorkizunari begira, argi daukat zer behar dugun. Alde batetik, euskarazko arte eszenikoentzako zirkuitu eta topagune gehiago. Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketek, adibidez, urte luzez erakutsi dute euskarazko sorkuntza sustatzeko tresna eraginkorra direla. Bestetik, ezinbestekoa da euskarazko ekoizpenek presentzia handiagoa izatea jaialdi handietan eta programazio nagusietan.

Datu batek egoera argi erakusten du. Arteakalek euskarazko ekoizpenei buruz egindako azterketaren arabera, 2025ean Euskadin ospatutako kale-antzerki jaialdietan programatutako 125 ikuskizun testudunetatik %19,46 baino ez ziren euskaraz. Euskararen presentzia kulturaren erdigunean egotea nahi badugu, datu horiek ere aldatu beharko dira. Periferiatik erdigunera salto eman behar dugu! Nik sinesten dut euskarazko antzerkiaren etorkizunean. Izan ere, gaur egun duela urte batzuk baino egoera hobean gaude. Baina normalizazioa ez da euskarazko ikuskizun gehiago egitea bakarrik; baldintza beretan programatzea, ikusaraztea eta baloratzea ere bada. Euskarazko antzerkia ez da aparteko genero bat. Antzerkia da. Eta, beste edozein antzerki bezala, kultur sistemaren parte osoa izatea dagokio.

David Taboada Ameztu Antzerkia



Maryse Urruty. Argazkia
Isabelle Miquelestorena

IPARRALDEAN ERE ITZULIKA

Larunbat arratsalde batez, iparraldeko barnekaldean. Kamioia kargatu, bidea egin eta herrixka bateko gelara heldu gira. Testuinguru gehiago emateko: Iparraldeko herri bakoitzak orain dela 50 urte eraiki zuen erabilera ainitzeko gela klasikora heldu gira. Gaur, antzoki bat izanen da. «Leiho ainitz bada gela hartan». Lasai, ohitura dugu. Kamioia deskargatu, ikusgarriaren apainketa gehi material teknikoa. Elektrizitatea aparte, autonomoak gira guztiz. Eszenografia muntatu. Gelako berina guziak busti ta aluminiozko paperrarekin estali. Luzea da, bai; ez hain ekologikoa, ez. Baina iluntasuna behar genuen eta iluntasuna lortu dugu. Autonomoak ginela erran dizuet?

Programatzen gaituen elkarte ttipiko kide batek afaria ekarri digu. Etxean egina, goxo goxoa eta ainitz, kasik gehiegi. «Espero jendea izanen dela, publizitatea denetan egin dugu, Euskal Irratietan, Ici Pays Basquen ta Iparraldeko Hitzan... Kafe pixka bat? Laguntza behar duzue?» Kafeari bai eta laguntzari ezetz, autonomoak gira. Gainera, emaztea, emanaldi ostean salduko dituen pintxoak egitera joan behar dela badakigu. Muntaketa bukatu, pase tekniko bat egin eta prest gira. Antzezlea, atera ez diren aulkien biltegiara doa prestatzera. Handik ahotsak entzuten dira, gero ta gehiago. Urduritasun pixkat sentitzen du makillatu berriak. Lankidea abisatzera dator. Bi minutu eta hastera doa.

Jokoa bukatu da. Txaloak, materiala jaso. Publikoa agurtu eta eskertu etortzeagatik.

Garagardo bat eskaintzen digute elkarteko kideek, plazerrekin. «Jende gehiago espero genuen, zaila da». Guk ere, jende pixkat gehiago espero genuen, baina hala da. Autonomoak girelako, gure buruak konbentzitzen ditugu, «Euskal antzerkia ez da «sold out» kultura, ikustera etorri den jendea kontent utzi dugu, gualdi polita izan da eta dena euskeraz egin dugu, zein gutitan gertatzen zaigun hori!».

Autonomia erran dut, baina gezurretan ari naiz. Autonomia deitzen diogu prekaritate hitza ez erabiltzeko, harrotasunez edo halabeharrez. Intermitentzia, diru-laguntza publikoak, bolondres eta militanteen bultzada gabe, ez ginateke arituko.

Sistema handiago baten parte gira eta honen arauak ez dira guk ezarriko genituenak. Ainitzetan, ez dakigu nork duen bestearen behar handiagoa. Baina bitartean antzerkia bizi da, antzerkiar bizi gira eta elkarrekin emozio-natzen segitzen dugu.

Kamioian igo eta bidea hartu dugu. Gualdiko memento hoberenak komentatzen goaz.

Irriz sartuko giren bitartean, arituko gira.

Maryse Urruty, Itzuli konpainiarentzat



Harrobia 30.urte.
Argazkia **EAB**

ESKENA 30 URTE

Gasteizen, 1995ko urriaren 23an, 12 talde eta konpainia elkartu ziren eta Eskena, Euskal Antzerki Konpainia Profesionalen Elkarte, sortu zuten: Porpol, Traspasos, Teatro Paraiso, Teatro Gasteiz Antzerki, Panta Rhei, Fco Javier Larreina, Markeliñe, Geroa, Kukubiltxo, Gorakada, Tanntaka, Hika.

2025ean 30 urte bete ziren euskal antzerkigintzako mugari izan zen gertaera hartatik eta, hau ospatzeko, abenduaren 10ean, Bilboko Harrobian, ekitaldi berezi bat antolatu zen.

Urteurren hori ez zen ohiko gala baten bidez markatu, formatu bereziko proposamen baten bidez baizik, espazio osoa zeharkatu zuen esperientzia eszeniko baten bidez. Antzerkia, dantza, zuzeneko musika eta zirkua Harrobiako txoko ezberdinetan gertatu ziren, eta publikoa ez zen ikusle huts izan- ibilbide baten parte izan zen, gertatzen ari zena gertutik biziz. Gau batez, Harrobia topagune bihurtu zen: 30 urteko lan, proiektu eta lankidetzaren partekatzearen lekua.

Zorionak lagunak!







Izaskun Barroso eta Jesús
Martín Paul Urkijoren kurtsoan.
Behean, solasaldia David L.
Bengoetxea. Argazkiak EAB

DE LA SEPARATA AL RODAJE



El pasado 18 y 19 de mayo celebramos en Bilbaoescena el primer curso de EAB 2026, con la colaboración de Fundación AISGE, "De la separata al rodaje". Esta ha sido la primera vez que organizamos un formato combinado de charlas abiertas y curso práctico posterior, apostando por crear un espacio donde compartir herramientas, procesos y experiencias de trabajo desde diferentes perspectivas del sector.

El curso contó con la participación de Paul Urkijo y David L. Bengoetxea, mientras que la parte prevista con Txabe Atxa (proceso de casting), que no pudo realizarse por motivos personales, se llevará a cabo más adelante.

La formación comenzó con unas conversaciones abiertas junto a David, desde el punto de vista de la representación, generando un espacio de intercambio entre actores, actrices e industria. Posteriormente, se desarrolló la parte práctica del curso con un grupo reducido de 16 alumnos y alumnas.

Las sesiones estuvieron centradas en el trabajo de escenas previamente seleccionadas por el equipo docente. A partir de una misma separata, el alumnado pudo acercarse a diferentes



fases del proceso interpretativo en el sector audiovisual: desde la preparación junto a representación, pasando por el análisis de guion y la creación de personaje, hasta la interpretación final en un entorno simulado de rodaje técnico bajo la mirada del director Paul Urkijo.



Itxaso Sánchez eta Josu Iriarte,
Paul Urkijorekin ikastaroa.
Argazkia **EAB**

EGOKITZAPENAREN ARTEA ESPAZIOA TALDEAN MANTENTZEA

Joan den astean Separatatik errodajera ikastaroan bildu ginen, grabazio-setaren errealtatean murgiltzeko xehetasunez diseinatutako formazioa. Helburua argia zen, eta bezainbesteko erakargarria: casting batean aurreko testu-lanketatik hasi eta errodajeko zuzendaritzara arteko bidea jorratzea.

Ikastaroa separata bat nola aztertu eta pertsonaia nola eraiki ulertzera bideratu zen nagusiki; ondoren, eraikitako pertsonaia horrekin setera joan eta zuzendariaren argibideak jasotzen ikasteko. Finean, testuaren eta zuzendaritzaren arteko zubi horretan behar ditugun tresna praktikoa lantzeko espazio bat zen.

Hala ere, bizitzako ustekabeek aurrera hartu zioten errodajeari: irakasle-taldean azken orduko ezinbesteko kasu bat izan zenez, guztioi aldatu zitzaigun hasieran aurreikusitako norabidea.

Engranaje garrantzitsu bat aldatzen denean, lurra ezegonkor bihurtzen da. Horregatik, gainerako irakasleen ahalegin handia nabarmendu nahi dut. Izan ere, beren eskuzabaltasun eta profesionaltasun osoa jarri zuten ikastaroari eusteko, eta miresgarria izan zen egoerak ekarritako bihurguneetara nola egokitu ziren ikustea. Zailtasunaren kudeaketa horretan bistan ge-

ratu zen zerbait ederra. Batzuetan, bertan behera geratzen diren planek indar berezi bat dute, materiagabea edo ikusezina den horretara erakartzen gaituena; alderdi teknikitik haratago doan itxaropen horretatik askatzera behartzen gaituzte, konexioa leku garbiago eta soilago batetik sortzeko.

Aldaketa horren erdian, ikastaroa erresistentziarako eta elkarri entzuteko ariketa ederra bihurtu zen. Egun horietan hain benetakoak eta zoragarriak diren ikaskideekin bidea egitea oparia izan dela azpimarratu nahi dut. Frustrazioa alde batera utzita, taldeak eskuzabaltasun handiz babestu zuen egoera, eta argi utzi zuen interpretazioa -eta sindikatua bera-, lanbide bat baino gehiago, giza sare bat dela.

Ikastaroari eutsi zioten irakasleei eta bidelagun izan diren kideei: mila esker, gidoia bat-batean aldatzen denean, ofizioaren egia elkarrekin defendatzen dela erakusteagatik, apaltasunez, errespetuz eta elkarri lagunduz.

Eneko Arcas



AISGE

da zurea

Ikus-entzunezko aktorea bazara,
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Musutruk,

Formakuntzan
laguntzaile
izango gaituzu,
lanean babesle

Eta dagozkizun
eskubideen
zaintzaile



aisge

www.aisge.es

943 271 599 tel.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa

